



## BALIO PROPOSAMENA



Adin guztietarako bidaiak antolatzen dituen agentzia bat gara, adinaren arabera proposamen desberdinak ditugu eta bezeroen aurrekontua kontuan hartuta, mota guztietako bidaiak eskaintzen ditugu.


Gure agentzia Caceresen kokatuta dago, sektorearekiko lehia gutxi dagoen kokapena duelako. Baina ez gara Caceresen bakarrik limitatzen, izan ere, pagina web bat daukagu.

Gure zerbitzua edozein bezero motari saltzen diegu; taldeak, bikoteak, pertsona bakarra, famili bat... Beraien premien arabera prestatzen ditugu zerbitzu hoberenak, beti prezio merkeak kontuan edukitzen.

Nahiz eta konpetentzia handia eduki nabarmendu egiten gara gure sektorean eskaintzen ditugun zerbitzu desberdinen kopuru handiarengatik. Prezio merkeak hartzen ditugu kontuan eta bezeroek dituzten premiak, bidai egokienak osatzeko.



Beste enpresekiko gehien desberdintzen gaituena, bezeroekiko atentzioa da eta bidai hobereana edukitzeko ahalmena ematen dugun zerbitzua, hau da, bonuen bidez eta zerbitzu jakin batzuk eratzen bidai bat finantziatzeko aukera ematen dugu eta horrela beraiek pertsonalki prestatutako bidai bat baino merkeagoa ateratzeko aukera.



Herrialde bakoitzeko COVID-19ari buruzko informazioa eskaintzen dugu, hobekien dagoen bidaiak aukeratzeko; izan ere, COVID-19a kanpo-faktore garrantzitsua bihurtu da azken urteetan eta datozen urteetan. Izan ere, jendea bidaiatzeko



beldur zen eta horregatik guk beharrezko informazio guztia ematen dugu eta Covid-19tik libre dauden kokalekuetara bidaiatzen dugu.



Guk betetzen dugun GJH-a **“Lan duina eta hazkunde ekonomikoa”**. Gure enpresarekin herrialdeko suspertuko dugu, turismo sektorea bultzatuko dugu eta horrek turismo herrialdeei dirua emango diete.